

A10

Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena

1176 eta 1178 orriak galdu direnez, ez dakigu ziur poema guk aurkeztu dugun moduan idatzia den. Gure proposamenaren arabera, 1175v, 1176 osorik eta 1177 osorik hartzen zituen poema honek, eskuizkribua osorik zegoenean. Hori pentsarazten digute poemaren ezaugarri metrikoei eta gaiaren garapenak. Ezaugarri metrikoei dagokienean, 10 silabako eta 8 silabako lerroak txandakatzen dira, eta lerro bikoitietan (*r*)ik errima dago (A11 poeman, berriz, errima ez da hain erabatekoa). Gaiari dagokionean, zerbait handia eta garrantzizkoa esan behar duela iragartzen du 1175v orrialdean, eta badirudi 1177v orrialdearen amaieran esaten duela, azkenik, esan beharrekoa: Magdalena da maitearen izena (hortaz, uste dugu 1178. orrian ez zuela poema honek jarraitzen).

Dena den, poema osoan aurkezten den argudio-lerroa ez da erraz ulertzen, besteak beste erdiko zati handi bat (1176. orria) galdu delako. Poemaren aurretik beste tinta batez erantsitako izenburuaren arabera, Lazarragak Magdalena izeneko Diego Bikuñakoaren alabarentzat eginiko poema da, 1567ko Santiago eguneko gauean Bikuñako elizpean jarria eta Pedro Saenz apaizak kopiatua; hortaz, Bikuñako dama galantak eta “jentil onbreak” gogoan harturik idatziriko lerro hauek garrantzizkoak dira Lazarragaren lanaren dataziorako.

Ez dakigu ziur zer den idazlea haserreturik (*enojadurik* eta *afrontadurik*) daukana, baina badirudi mutilek ez dituztela Bikuñako neskek behar bezala zerbitzatzen. Aldiz, Lazarraga han biziko balitz (*ziudadetxo txikir batean neurtxeau bakar-bakarrik* bizi dela dio; Erdoñan, Ozetan eta Larrean bizi izan zen, garai desberdinetan), ondo zerbitzatuko lituzke, bizitza laburraren topikoak agintzen duen moduan (*on deretxunai on eretxazu, [...] zegaiti laster horrako gara*). Baina Lazarragak dontzeila bakar bat maite du: Magdalena.

<1175v> *Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena, hija de M. Diego de Bicuña, barbero, el qual puso en un poste del portegado¹ de la iglesia de Vicuña la noche de Santiago, a 25 de julio de 1567, y tomó el dicho traslado Pedro Saenz, clérigo de Bicuña, que lo supe yo después.*

Arren, txoriak, exilik zaoz,²
badozu miramenturik;
mundo guztia itsasoagaz³
nanzuzu,⁴ zaoz geldirik.⁵
Dama galantak, ni ez nax digno, 5
ez dot merezimenturik,
zuetan⁶ mihiau ifinterako;⁷
banago lotsaz beterik.
Oi,⁸ bada bere,⁹ borondateau

¹ *portegado*: ‘ataria’.

² *zaoz*: ‘egon zaitez(te)’.

³ *mundu guztia itsasoagaz*: ‘mundu guztia eta itsasoa’ edo ‘mundu guztia itsasoarekin’. Bi aukerak dira posible, kasu honetan zaila baita ziur jakitea “Xrekin Y” erako egitura bat den ala sozietibo arrunt baten aurrean gauden; izan ere, halakoetan erabakigarria gertatzen da aditzaren pertsonari begiratzea, eta hemen ez dago jakiterik hurrengo lerroko *nanzuzu* eta *zaoz* adizkiak *zu* ala *zuek* pertsonarekin komunztatzen diren.

⁴ *nanzuzu*: ‘entzun nazazu(e)’.

⁵ *nanzuzu, zaoz geldirik*: Antzeko formula aurkitu dugu eskuizkribuko lau lekutan, ondoren datorren solasari adi izateko arreta eskatzen duen funtzio kataforikoan: *nanzuzu, zaoz geldirik* (A10: 4), *oy lenaengo abantajea / dasadan, zaoz exilik* (A14: 49-50), *Asi gura dot; / nanzuzu, zaoz exilik* (A28: 39-40), *Arren, nanzuzu, / Jaun Zerukoaren amarez, / konta dezadan / Pasio Santua dolorez* (B29: 17-20).

⁶ *zuetan*: ‘zuegan’, bizidun markarik gabe.

⁷ *zuetan mihiau ifinterako*: ‘zuetaz gaizki esaka aritzeko’.

	dadukat utra ¹⁰ osorik, zeinak ixilik egoterako ez dit emaiten lekurik. ¹¹ Obligazioz bete ninduzun, ¹² guztiok hala gurarik; pagaetako ezin neike ¹³ bapere serbizioz.	10
	Oi, bada bere, presentetxo hau hartu egizu niganik; lizenziea, arren, indazu, badozu borondaterik, dakidantxeau ¹⁴ esaterako, ez egin beste gauzarik: gauzaxe ¹⁵ batek oita nauko handiro enojadurik; donzeilatxoak, esan behar dot, ezin neonge ¹⁶ exilik.	20
<1177r>	[...] Zuegaz, ¹⁷ barriz, ez eukaen oita bapere konturik; ene bizia! geratu ninzan handiro afrontadurik. ¹⁸ Zeruko Jaunak oi ez diela ¹⁹ amoreokin ditzarik, zerren da ²⁰ zeurok serbietako ez daben konstanziarik. Dama galantak, sinis nazazu, oi zeukazu ²¹ dudarik, leku honetan biziko baninz, ez neiala ²² besterik gabaz-egunaz serbidu baxe, ²³ sekula asperzakarik, ²⁴ hau zuegaiti egiterako asko da errazoarik.	30
		35
		40

⁸ *Oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

⁹ *bada bere*: ‘gutxienez, bederen’.

¹⁰ *utra*: ‘oso’.

¹¹ *ez dit emaiten lekurik*: ‘ez dit ematen aukerarik’.

¹² *Obligazioz bete ninduzun*: ‘zure zordun egin ninduzun’.

¹³ *ezin neike*: ‘ezin egin nezake’.

¹⁴ *dakidantxeau*: ‘dakidantxo hau’.

¹⁵ *gauzaxe*: ‘gauzatxo’.

¹⁶ *neonge*: ‘nengoke’.

¹⁷ *Zuegaz*: ‘zuekaz, zuekin’.

¹⁸ *afrontadurik*: ‘iraundurik, haserreturik’.

¹⁹ *ez diela*: ‘ez diezaiela eman’.

²⁰ *zerren da*: ‘zeren eta’.

²¹ *zeukazu*: ‘ze eukazu, ez ezazu(e) eduki’.

²² *ez neiala*: ‘ez negiala, ez nuela egingo’.

²³ *baxe*: ‘baizen, baizik’.

²⁴ *asperzakarik*: ‘aspertu gaberik, nekatu gaberik’.

	Oi, bada bere, bizi oi nax, Jaun Zerukoak gurarik, ziudadetxo txikir batean ²⁵	45	
	neurtxeau ²⁶ bakar-bakarrik. Ene izena letra ²⁷ honetan		LÇRGA
	oi dago eskrebidurik. Oi honegaiti, jentil onbreak, ez egon enojadurik,	50	
<1177v>	zegaiti zuek enojatzeko ez dot nik borondaterik; guzti-guztiok serbitzerako nago ni obligadurik.		
	Oi, bada bere, ziertamente banago enojadurik, zerren damaok serbietako ez dozun miramenturik.	55	
	Gehixeago ²⁸ esango neben, eugi baneu astirik;	60	
	badanik bere, ²⁹ amoreonek ez dit emaiten lekurik. ³⁰ On deretxunai on eretxazu, ³¹ ez hartu soberbiarik,		
	zegaiti laster horrako gara hoetan akabadurik. ³²	65	
	Amorea ta biok gabilza, ez dogu beste lagunik; dama kurela ³³ ifinten dogu gaztigadu ³⁴ ta mansarik.	70	
	Abisaetan zaitudan gero, ³⁵ ez egin beste gauzarik, zuen arteko donzeila batek nauko enterradurik; ³⁶ haen izena letra honetan		MGDLNA 75
	oi dago relatadurik; pensamentuok altuan ditut, ³⁷ hark ala merezidurik.		

²⁵ *ziudadetxo txikir batean*: Joan Perez Lazarragak lehen haurtzaroa Ozetan egin zuen; 1562 inguruan aldatu zen familia Erdoñara, eta 1576az geroztik Larrean bizi izan zen emaztearekin.

²⁶ *neurtxeau*: ‘ni neu’, *neurau*-ren forma indartua da.

²⁷ *letra*: ‘monograma’.

²⁸ *Gehixeago*: ‘apur bat gehiago’.

²⁹ *badanik bere*: ‘hala ere’.

³⁰ *ez dit emaiten lekurik*: ‘ez dit ematen aukerarik’, 12. lerroan bezala.

³¹ *On deretxunai on eretxazu*: ‘maite zaitu(zt)ena maite ezazu(e)’.

³² *laster horrako gara / hoetan akabadurik*: ‘laster beste mundurako gara, hauetan (hemengo kontuetan) amaiturik’; bizitza laburraren topikoaz ari da.

³³ *dama kurela*: ‘dama krudela’, hots, Herioa.

³⁴ *gaztigadu*: ‘abisaturik’.

³⁵ *Abisaetan zaitudan gero*: ‘abisatzen baitzaitut, abisatzen zaitudanez’.

³⁶ *enterradurik*: ‘ehortzirik’; hemen erabilera metonimikoa du eta ‘hilik’ esan nahi du.

³⁷ *pensamentuok altuan ditut*: ‘helburuak oso goian ditut’.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A10 – *Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena* (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago